

Zer da potreta bat?

Potreta pertsona baten itxürapena da. Argazkigintzaren asmatzea beno lehen, norbaiten itxüra gogoan etxekitzeko eginmolde bakarra bere potreta egitea zen. Bena erretratü batek ez dü pertsona baten itxüra baizik erakusten: omenaldia izan daiteke, nortasüna agerian eman daiteke edo estatüsa edo ofizioa sinboliza dezake. Potretako objektüak, arropak eta gibleko planoak ontsa haütatzen dira itxüratüko pertsonari bürüzko aiherüak emaiteko.

Maika Etxekoparren potreta marraz ezazü:

- Xütik ala jarririk?
- Bea ala beste norbaitekin?
- Zeren egiten agertüko da? Zerentako?
- Bere nortasünaren zein alde erakutsiko düzü? Nola?
- Bere ofizio edo diziplina artistiko güziak agerian emanen düütüzü edo zonbait haütatüko?
- Zein objektü, arropa eta gibleko plano haütatüko düzü?

